


## EMAKUMEA ETA TABAKOA

Orain dela guttirarte, emakumeak erretzea oso gaizki kontsideratua zegoen sozialki. Bigarren Guda Mundialaren ondoren zabaltzen hasten da emakumeen artean, erretzeko ohitura.

Herrialde garatuetan, batzbesteko portsentaien arabera, ehuneko erretzailetik 73 gizonetakoak dira, eta 27 emakumeak. Dena dela, portsentaiak berdintzeko joera nabaritzen da.



Estadistiken arabera, emakumeak gizonetzkoak baino lehenago hasten dira erretzen. Gainera, emakumeak, zenbat eta jakile edo jakintsua-go, gehiago erretzen dute: goi mailako ikasketak dutenei dagokienez, %64 erretzen dute, lehen mailako ikasketak egin dituztenen artean %17 bakarrik erretzen dute bitartean.


Emakumezko tabakismoa osasun arazo larria da. Adibide gisa, esango dugu orain dela denbora gutxirarte, emakumeen artean bularreko minbizia zela hilgarriena. Baina bost bat urtetik hona, emakume erretzaileen artean toki hau birrikako minbiziak hartu du.

Zergaitik kokatu da tabakoa hain finko eta sendo emakumeen artean? Batzuk diote beraren erabilpena laguntzen duten zeinuak dotore eta zentsukorrak direla; gizonetzko eta emakumezkoen arteko berdintasuna adierazten duela eta emantzipazio zeinu argia dela.

Baina ohitura hau duten emakumeek, ba al dakite bere osasuna guztiz kaltetzen ari direla, biziraupena murrizten eta gizonetzko erretzailecengain zeukaten abantailetariko bat galtzen ari direla?

Erretzen duen emakumeak gizon erretzaileak jastzen dituen kalte berdinak iraun behar ditu, gehi emakumezko kondizioa dela eta jasan behar dituenak. Tabakoak eragin berezia du birdorgarri edo ugalgarri funtzioan eta amatiar gaitasunean, ondorengo familia arriskuan jarritz.





Askotan pentsatzen da, emakume erretzaileak haurdun daudenean bakarrik utzi behar dutela erretzeari, eta nahikoa dela haurdunaldia hasten denean tabakoa uztearekin. Baina hau ez da honela, tabakoak beste ondori ezezkorrak bait ditu emakumearen organismoan.

- Hilerokoan: ziklo honen aldaketak hiru aldiz sarriago gertatzen dira emakume erretzaileetan. Hileroko mingarriak eta ziklo ez-erregularrak desagertu daitezke tabakoa uzterakoan.

- Ugalkortasunean: ez-emankortasun eta esterilitate kasu asko tabakoaren ondorioa dira. Kontenitzen dituen toxikoek Falapio tronpetan eragin ezezkorra daukate.

Odol gatzapenean ere eragin ezezkorrak dauka tabakoak. Pildora itsurazko antisorgailu hormonalak hartzen duten emakumeek tronbosi eta enboliak jasatzeko ahalmen handiagoa dute. Hau honela da, bi faktoreen nahasketak -pildora eta tabakoa- odolaren loditasuna handitzen dutelako eta honela plaketetan eransteko arriskua dago.

- Menopausian: erretzearen ohiturak obarioaren zahartzaro aurreratua eragiten du, eta ondorioz menopausia aurreratu egiten da emakume erretzaileen zikloan.


Bestalde tabakoak, emakumearen edertasunean ere kalte handiak eragiten ditu: tximurrak agertzen dira, ahultasuna, hilea jaisten da, eta abar.

### **Emakume erretzailearen amatasuna**

Nikotina amaren esnetara pasatzen da, eta honek haurrean zera sartzen du: suminkortasuna, negarra eta lo ezina.

Emakume erretzailearen fetoak pozoapena jasaten du nikotina eta karbonozko monoxidoa direla eta, zeintzuk fetoaren odolera pasatzen dira. Amak xigarro bat erretzen duen bakoitzean fetoaren bihotzaren taupadak arindu egiten dira. Erretzen duten haurdunak ahalmen edo posibilitate handia dute hildako haurrak izateko edo hauek bizitzako lehendabiziko eguntan hiltzeko. Aborto gehiago izaten dute emakume erretzaileak.

Goitinahi eta okadak gehiago dira emakume erretzailean, haurdunaldiaren lehendibiziko hiru hilabeteetan, puzkortasun edemak eta hipertentsioa bezala.



Aurreratzen diren erditzeei buruz, hauek portsentai handi bat haurdunaldi zehar tabakoa erabiltzearen ondorio dira.

Emakume erretzaileen seme-alabak pisu gutxiarekin jaio-tzen dira kasu gehienetan. Beraren fetoak oxigeno gutxiago jasotzen du eta beraren plazentak odol gutxiago, zeinen ondorioa bezala oso geldiro garatuko da eta sailtasun handiz.

Feto deformazioak sarriago agertzen dira ama-erretzaileen haurretan. Gehien ematen direnak hauek dira: esku eta burmuin-ekoak.

Kontura daitezen ba, emakume haurdunak, haurdunaldian erretzeak, semea ihaultzeko era bat dela.

*Miren Itziar Dañobeitia*